

GEPren bisita Txekiar Errepublikara eta Eslovakiara

2009/03/09

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleek Txekiar Errepublikako eta Eslovakiako hainbat enpresa eta unibertsitate bisitatu dituzte Erasmus bidez praktikak egiten ari diren ikasleei jarraipena eginaz batera.

Txekiar Errepublikan toki hauek bisitatu dituzte:

- **Cikautxo CZ** enpresa Jablonec n. Nisou herrian kokatua. Enpresa honetan ikasketa amaierako proiektua egiten ari diren bi ikasle daude Antolakuntza Industrialean Ingeniaritza eta Diseinu Industrialean Ingeniaritza Teknikoa titulazioetakoak.

- **Batz CZ** enpresa Frydlant n. Ostrava herrian kokatua. Bertan, Antolakuntza Industrialean Ingeniaritza titulazioko ikasle bat dago proiektua egiten.

- **Brno University of Technology**, unibertsitate honetan Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza eta Elektronika Industrialean Ingeniaritza Teknikoa titulazioetako bi ikasle ari dira proiektua egiten.

- **Mendel University of Technology**, unibertsitate hau elkarlana bultzatzeko bisitatu da.

Eslovakian bisitatutakoak:

- **Cikautxo Sk** enpresa Nove Zanky herrian kokatua. Mekanika Ingeniaritza Teknikoa titulazioko ikasle bat proiektua egiten ari da bertan.

- **Slovak University of Bratislava**, elkarlana bultzatzeko bisitatu da.

